



EBBren Prentsa Bulegoa
EUZKADIko
PRENTSA IDAZKOLA



El único discurso válido será el pronunciado por el orador en el acto.
Balioa izango duen diskurtso bakarra izango da hizlariak ekitaldian bertan eskainiko dueña.

ANE MIREN ATÍN

ALDERDI EGUNA 2019.09.29

EGUN ON FORONDA! EGUN ON ALDERDIKIDEEK, LAGUNOK!; ONGI ETORRI DANORI! Baita beste lurralde batzuetatik zatoztenak ere. Ongi etorriak!

EGIren partez Ongi etorri berezia ere kanpotik datozen gazteei:

Bon dia amics balears.

I bon dia també als nostres amics catalans. Desde EGI, recibid nuestro reconocimiento a vuestra valentía, al movimiento pacífico generado y cuyas consecuencias, por una justicia manipulada que es juez y parte, estáis injustamente cobrando.

Bide batez, babes beroena eta elkertasuna adierazi nahi diegu Altsasuko gazteei, mila egun baino gehiagoz espetxeratuak daudenei; auzi honen bidegabekeria eta neurrigabekeria salatzen dugu. Gezurrari, egia. AURRERA ALTSASU!

Izugarria da Forondako zelaia beste urte batez jendez gainezka ikustea, alderdiaren indarra egun berezi honetan sentitzea. Euskadik aurrera darrai, bai, baina argi dago: Euzko Alderdi Jeltzaleak eta Euzko Gaztedik ere aurrera darraite!!

Euzko Gaztediren mezua zuoi helaraztearen erantzukizuna dagokit gaurko honetan: gazteak gara, indarra dugu; adorea, inkonformismoa, ezinegona, lana, konpromisoa jartzen dugu egiten dugun orotan; Alderdia bultzatzeko, Euzko Gaztediren mezua gazteriarri zabaltzeko. Izaera honek momentu latz eta gogorak ekartzen dizkigu batzuetan, baina beti gaude prest eta gogotsu lanari elkarrekin ekiteko, lurralde izaeratik haratago, gure aberria, EUSKAL ABERRIA, eraikitzen jarraitzeko.

Gazteok konponbide zehatzak behar dituzten arazoak ditugu: lan baldintzak, askotan lotsagarriak, emantzipatzeko zailtasunak, besteak beste. Baina gaur bereziki belaunaldi bezala ditugun erronkei egin nahi diet so: JASANGARRITASUNA, BERDINTASUNA ETA HERRI IZAERA: GURE NORTASUNA.

Mundu mailan gazteok erakutsi dugu aldaketa klimatikoak eta honen ondorioak benetan arduratzen gaituztela. Ez da gai arrotza gure alderdiarentzat, Euskal Herriak badu jasangarritasunean zer esanik. Gure herria, Euzkadi, txikia da tamainaz baina aldaketa klimatikoaren eredu izan behar du, gazteok jasangarritasunean eredu izan behar dugu. Euzko Gaztedi osatzen dugunok argi dugu erronka honi erantzutea gu guztion erantzukizuna dela. Gure herria eraikitzen dugunok horren arduradun gara. Zaindu maite duzun hori, dio abestiak, beraz zaindu dezagun gure amalurra.

Baditugu beste erronka batzuk ere. Gure alderdiak argi jardun du PAREKIDETASUNAREN alde; baina oraindik ere bidea dugu egiteke! Hamarkadaz-hamarkada, alderdiari bultzaka aritu zaizkion emakumeak ekarri nahi ditugu gogora, Emakume Abertzale Batzatik hasi eta orain arte, Euzko Alderdi Jeltzalearen alde lan egin



Sab
in
Etx
ea.
Ibá
ñez
de
Bilb
ao,
16 -
480
01
Bilb
ao -
Tfn.
- 94
403
94
00 -
09-
18
-
Fax
-
94
403
94
12
- E-
mail
-
pre
nts
a@
eaj-
pnv
.eu
s -
We
b.-
ww
w.e
aj-
pnv
.eu
s

du ten alderdikide eta alderdizale emakume horiek guztiak omentzen ditugu. Zuei esker gaude gu hemen eta zuengatik dugu hitza emakume gazteok. ZINEZ, ESKERRIK ASKO!!

Euzko Gaztediko emakumeok, abertzale eta humanista garen neurrian, argi dugu ez dugula izango aberri askerik, emakume aske eta ahaldundurik gabe. Bada garaia emakumeok entzun eta aintzat har gaitzaten!!

Alderdia gazte dago. Adinez baino, eguneroko jardunean alderdikideok gazte mantentzen dugulako. Euzko Gazteditik, gaur zelai honetan gurekin ez ditugun alderdikideak oroitu nahi ditugu, bizitza alderdiari, aberrigintzari, eskaini diotenak. Gure gurasoen belaunalditik guganaino iritsi diren erreferenteak. Euzko Alderdi Jeltzalearen ondarea elikatu dutenak. Alderdiaren indarra tinko mantentzea da utzi diguzuen altxorra. Mila esker Euzko Gaztediren partez Abertzale sutsuei, jeltzale eredugarriei! Egun handirarte!

Egunera eta hurbilago etorri, baditugu inguruan gure izaera eta herri nortasuna zapuzten, zikintzen, saiatzten direnak. Ez gaituzte kikilduko. Ez dugu atzera egingo. Berriz kanpainan gaude, gure bozkek balio izan ez balute bezala. Laster izango dira gurean kakalardoak. Baina guk gurera jarraituko dugu, aurrera, beti bezala! Norabidea argi dugu, Gazteok argi dugu Euzkadi defendatuko duen bakarra Euzko Alderdi Jeltzalea dela. Udaletan, kuadrilletan, foru aldundietan, Gasteizko parlamentuan, Madrilan eta Europan defendatzen gaituelako eta horretan jarraituko duelako. Irabaztera goaz!

Tamainaz hain txikia den gure herri honek, konponbideak eskaintzen dizkie gu baino handiago diren eta botere gehiago duten horiei. Argi dago BOTEREAK ez dakarrela HUMANISMOA, baizik eta berau osatzen duten pertsonak. Pertsonak garelako humanistak! Eta gure alderdia, oinarri-oinarritik da humanista. Gai gara bidegabekeriak salatzen, gai gara migrazioaren krisiari soluzioak planteatzeko, errefuxiatuak pertsona izate hutsagatik merezi duten bezala tratatzeko, nagusien beharrei erantzuteko. Hala gara gu eta hala dira gure ordezkariak. Allá donde somos insignificantes en tamaño, nos hacemos ver por nuestra actitud!

EUZKO GAZTEDI PREST DAGO! Gu prest gaude, elkarrekin, euskara bultzatzeko, ahobizi eta belarriprest izateko, alderdiaren hazia ereiteko, herrigintzan sakontzeko, herri nortasuna defendatzeko, alderdiaren alde egiteko. Euzkadi eraikitzen dugun gizon eta emakumeon borondatearen alde lan egiteko! Pertsona askeen Herri librea eraikitzeke!!

GORA EUZKO GAZTEDI!!

GORA EUZKO ALDERDI JELTZALEA!!

GORA EUZKADI ASKATUTA!!